


fundamentales de la sociedad que entre todos debemos construir si queremos sobrevivir a este naufragio, que no es sólo económico, sino también político, social y cultural. Sin embargo, para construir esta «nueva sociedad» será necesario reflexionar seriamente sobre muchas cuestiones que en el libro se dejan de lado o se mencionan sólo de pasada. Por ejemplo, si queremos sobrevivir al naufragio, tendremos que pensar seriamente sobre problemas medioambientales y sobre el desafío que supone aspirar siempre al crecimiento en un contexto en el que los recursos parecen ser limitados. Si queremos sobrevivir al naufragio y crear una nueva sociedad, tendremos que pensar seriamente en torno a la creciente desigualdad entre los países vencedores y vencidos en las dinámicas propias de este mundo crecientemente global y en torno a las graves injusticias que éstas provocan. Si queremos sobrevivir al naufragio y crear una nueva sociedad, no será suficiente con abrazar la tecnología y la innovación como única tabla de salvación, sino que habrá que reflexionar críticamente sobre los efectos de ésta y sobre el modo en que estamos transformando la sociedad de un modo que no siempre concuerda con las intenciones y previsiones de los creadores de las tecnologías, ni con las de sus usuarios. Sin pensar seriamente sobre estos y otros temas, cualquier intento de comprender nuestro naufragio y construir una nueva sociedad será necesariamente parcial y limitado. Y por más que probablemente no sea intención del autor de este libro abordar estos temas de gran calado, el título del libro no puede evitar que una y otra vez los echemos en falta a lo largo de la lectura.

*Iñigo Galzacorta*



**ARRIETA URTIZBEREA, Agustin**  
**Filosofiarako sarrera bat**

Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko  
 Argitalpen Zerbitzua, 2015  
 262 or. ; 24 cm  
 ISBN: 978-84-9082-285-2

Filosofiako ikasleok, oro har, testu aldrebesak eta konplexuak izaten ditugu bidelagun. Ezauzgarriok klasikoei egozteak ez da ez-ohikoa gertatzen, maiz, gaiak berak baitakar erraztasunaren aurkako apustua. Zer esanik ez, gaiari euskerara egindako itzulpena gehitzen zaionean: izan ere, testuaren muina ahalik eta hoberen harrapatu nahian, esaldi luze zein nahasiak eta garbizalekeriak bustitako hitz arrotzak izaten dira lekuko nagusi. Klasikoekin nahikoa ez, eta egun gidaliburu zein testuliburu modura argitaratzen direnak ere nahi baino buruhauste handiagoak ematen dizkigute.

Egoera orok izan ohi du, ordea, salbuespena; kasu honetan, esku artean dugun liburua izango litzateke aipatutako mundu nahasira argitasun izpi bat isurtzeaz arduratu den liburua: *Filosofiarako sarrera bat*. Izenburuak adierazten duen modura, gidaliburu bat da, filosofien baitako auzi eta gai nagusien gaineko zertzelada nabarmenenak eskaintzen di-

tuelarik. Zertzeladok xehetasun txikiena ere kontuan hartzen dute eta agian honexegatik gertatzen da hain freskoa liburua.

Iturriei dagokionez, aniztasuna nabaria da, bai formala –iturri anitz, alegia–, bai materiala –iturrien artekoa, egile-mota ezberdinak. Bestalde ere, aipatzekoa izan liteke iturriak kapitulu bakoitzaren bukaeran aurki ditzakegula, bibliografia kapituluz kapitulu ipintzen baitu. Horrela, gai bakoitzari zuzenean loturiko lanak aurkezten dizkigu, normalean iruzkin txikiak gehituta obra bakoitzari.

Iturrien aniztasunera bueltatuz, kapitulu orotan ikus dezakegu, adibidez, klasikoen erabilera konstantea: grekoei dagokionez, ez dira falta Platon eta Aristoteles, edota Lukrezio bera; horrez gain, filosofo klasiko modernoak ere asko dira, hala nola, Descartes, Hobbes, Locke, Leibniz, Rousseau, Kant eta batik bat Hume; beranduagoak berriz, J.S. Mill, Marx, Kropotkin, Tolstoi...; eta XX. mendetik hona, aniztasun ugari dago, esaterako, Ortega y Gasset, Wittgenstein, Russell, Rawls, Kripke... Horiek dira, nagusiki, iturri zuzenak. Badaude ere filosofo garaikideak, gai zehatzak jorratzen dituztenak: Damasio, Sandel, Precht, Haack, Kitcher, Carroll... Beste egile batzuk ere erabili ditu, zeharka, gai konkretu baten edo filosofiaren sarrera edo oinarriak azaltzen dituztenak: Kepa Korta, hizkuntzari dagokion atalean, Wolff zein Miller politikan, eta orokorrakoak diren Matravers edota Warburton. Euskal egileak ikus genitzake bibliografian zehar: Joxe Azurmendi, klasikoa, baina baita Javier Aguirre, aintzinako filosofia grekoan aditua, edota erreleboan datozen gazteagoak: Ekai Txapartegi, Mikel Torres... Agustín Arrietak berak egindako ikerketa eta liburu ugari ere murgiltzen ditu lan honetan zehar.

Adierazi denez, gaika aldatzen doaz egileak, bakoitzaren orokortasunaren edo zehaztasunaren arabera, batzuk ala besteak aukeratuko ditu. Hau da, nahiz eta guk modu kronologiko batean adierazi, filosofo bakoitza sail batean edo bestean kokatzen da –politikan, ezagutzan, artean, zientzian...– garai guztietako klasikoak zein garaikideak eskutik doazela.

Aipatu ditugun iturrien eta gaien aniztasuna kontuan hartuz, edonork ondorioztatuko luke esku artean izan dugun liburua, ez dela filosofiarako edonolako sarrera. Eduki aberastasun hau, ordea, arriskutsua gerta daiteke, modu honetako liburuetan. Izan ere, distantzia laburra egon ohi da mamitsua denetik astuna denera. Kasu honetan baina, iruditzen zaigu Arrietak presente izan duela arrisku hori, eta ahal izan duen neurrian saihestu du. Lorpen hau erdiestera eraman duen hainbat puntu aipagarriak iruditzen zaizkigu.

Alde batetik, hizkuntza. Pozgarria da euskaraz idatzitako gisa honetako liburu bat irakurtzea. Gainera kasu honetan, testu akademikoa izatea eta bertan lantzen diren gaiak sakonak izatea ez dira oztopo autorearentzat hizkuntza erraz eta arin bat erabiltzeko. Egunerokotasunean erabiltzen dugun hiztegia, esaldi laburrak... hauei esker, liburuaren haria jarraitzea xamurragoa suertatzen da, bertan eskaintzen diren kontzeptu eta teoriéz pixkanaka-pixkanaka jabetuz.

Esandako erraztasuna ahalbideratzeko gako nagusia, ordea, esango genuke adibideak direla. Ugariak dira, gutxi gorabehera aipatzen den teoriari ekartzen du autoreak adibide bat. Adibide hauek, modu bikainean txertatzen direlakoan gaude, antzematen da autoreak arreta berezia eskaini diela eta hori dela eta errealitatearekiko zubi modura jokatzeko dute. Izan ere, adierazten den teoriak hasiera batean, arrotza eta ulertzen zaila badirudi ere, adibideak beren sinpletasunean, irakurleari aipatutako teoria gerturatzea eskuratzen dute.

Irakurleak testua bere egiteko beste arrazoia, galderen ugaritasuna delakoan gaude. Gaia aurkezteko baliatzen ditu galderak; galdera hauek ez dute estatus berezirik, hau da, egunerokoan irakurleak berak planteatu ditzakeen galderak dira. Modu honetan, gai ororen hasieran irakurlea erakartzen du Arrietak eta ondoren, historian zehar galderek ahalbideratu dituzten autore ezberdinen gogoeta filosofikoak eskaintzen ditu. Eta erantzunak? Ez dago erantzunak azaltzeko beharrik. Hau da, aukera ezberdinak aurkeztu ondoren, Arrietak modu argi batean bide hauetako baten alde egiten ez duenez, irakurleari uzten dio etxeko lan hori.

Orain arte azaldu ditugun ezaugarriez gain, aipagarria deritzogu Arrietak testua nola egituratzen duen. Sarrera baten ondoren, hamar zatitan banaturik dago liburua; zati bakoitza auzi edo gai filosofiko bati dagokiolarik. Lehenengoa, ezagutzaren teoriari (edo Episte-

mologiari) dagokio, bertan, jakitearen eta uste izatearen arteko bereizketatik abiatuta justifikazioaren kontzeptua zein bere baitan sortzen diren arazoak lantzen ditu. Bestalde, ezagutza prozesuan lekukotasunak duen garrantzia deskribatzen du; bigarrenak metafisika du hizpide, hau da, errealtatea deritzogun hori. Errealtatea sailkatzeko dugun berezko joerarekin hasi eta banakoei, ezaugarriei, predikatuei, kausalitateari zein itxuraren eta benetakoa denaren arteko bereizketari irekitzen die atea; ondoren, hizkuntzaz jarduten du esanahiaren kontzeptua erdigunean kokatuz; gero, gogoaren filosofiari egiten dio erreferentzia eta bertan gorputz-gogoen auzia lantzen du ikuspegi ezberdinetatik, ni-a, aukeramen askatasuna eta beste gai batzuk jorratuz; hurrengo atalean, balioei eta egitatei buruz jarduten du, elkarrekiko duten harremanari buruz, nagusiki; politikaz mintzatzean, autoritatearen edota gobernuaren auzitik abiatuta demokraziaz, askatasunaz, justiziaz eta egungo ideologiez hausnartzen du; arteari buruz ere idatzen du, hala nola, artearen izaera eta interpretazioa zein diren zehaztu nahian eskaini diren ikuspegiak ekarriz. Moralarekin izan dezakeen lotura eta fikzioaren gaia ere lantzen ditu; azkenik, zientziari buruz dihardu, istorio, irudi zein analogien bitartez bere izaera eta bilakaera azaltzen dizkigularik. Aldi berean, zientziak teknika eta teknologiaren bitartez gizartearen duen eraginkortasuna eta bertatik eratorritako auziak aurkezten dizkigu; bukaeran, bi eranskin gehitzen ditu: bat argudiatzeari buruz eta bestea berriz, Humen moralaren filosofiari buruz.

Zati hauetako bakoitza berriz, azpiataletan sailkatzen du eta azpiatal hauek gehiago ere xehetzen ditu. Hasiera batean, aurkibidea ikustean gehienbat, nahasgarria eta ez erakargarria gerta daitekelakoan gaude. Liburua irakurtzen joan ahala, ordea, eskertzen dira testuan agertzen diren izenburu guztiak. Izan ere, beti lotzen ditugu filosofia testuak paragrafo amaigabeekin eta Arrietaeren sistemak honekin apurtzen du. Azpiataleei esker, testua modu antolatua batean aurkezteaz gain, askoz ere samurragoa da bere irakurketa. Paragrafoak zein kapituluak ez dira bestela bezain astunak gertatzen eta uneoro du irakurleak presente zeren gainean irakurtzen ari den.

Gure ustez, lan honek hainbat ekarpen interesgarri egiten ditu. Agerikoena, agian aurrez adierazi dugun modura, hutsune bat betetzea izan daiteke. Hau da, euskaraz zuzenean idatzitako halako libururik ez zegoen behintzat. Dena den, hainbat ertz daude hutsune hori betetzeko ekintza horretan. Alde batetik, Filosofiako Gradua ikastera sartzen den orontzat laguntza handia izango da: eskoletan emandakoaren oinarria edota heldulekua hor eduki dezakete, diziplina orokorra zein adarrak modu erraz eta ordenatu batean aurki ditzakete. Izan ere, gai zail eta korapilotsuak, bere zailtasun propioa mantenduz bada ere, modu ahalik eta sinplenean aztertzen dira. Bestalde, liburua, objektu gisa, unibertsitateetik at dagoen batek ere eros dezake eta, hor ere, gai filosofikoetan sartzeko aukera ona edukiko lukeela uste dugu.

Liburua, halaber, hainbat alderditatik iruditzen zaigu interesgarria. Bere ezaugarrietako bat da gure garaian kokatua dagoela. Hau da, geure garaitik eta geure garairako dago idatzia. Ez da filosofiarako sarrera soil bat, zeinetan hainbat egile azaltzen diren, arazo eta auzi klasiko batzuk eta kito, ez. Lan honek dakarren berritasuna eta irakurtzeko interesa garaikidetatua da. Auzi klasikoak, irakurri daitekeen moduan, betiko auziak izan dira eta halaxe dira oraindik. Baina horrek ez du kentzen egungo aldaerak, adibidez, ezberdinak izatea. Arrietak egunotako auziekin lotu eta birplanteatu egiten ditu auzi klasikoak. Gainera, filosofiaren jarraitutasuna eta presentzia frogatzen da, nolabait. Liburuan zehar, ezagutzari, politikari, arteari, hizkuntzari, zientziari eta abarri buruzko galderak eta auziak aurkezten dira, arazo klasiko gisa aztertuta, baina egun egunkarrietan azaltzen diren moduak ere azalduta. Arrietak oso modu naturalean lortzen du auzi klasikoaren eta garaikidearen arteko lotura. Horrekin, beste behin, filosofiaren eginkizuna bizirik dagoela erakusten du.

Sarreraren adierazten den bezala, filosofiak zehar kontzeptuekin egiten du lan. Hau da, eguneroko hizkuntzan, pertsona orok egiten du metafisika pixka bat, etikaz eta politikaz mintzatzen da, balioak adierazten ditu, arteren bati buruzko ikuspegiak azaltzen du, teknologjari buruzko iritzi bat du... Edonork du alemaniarrek Weltanschauung deitzen zuten hura, munduaren ikuskera bat, alegia. Baina arazoak hasten dira elkarrizketa batean justiziari, gobernu

onari, zorientasunari, jakiteari eta abarri buruzko ideia ezberdinak edota kontrakoak azaltzen direnean. Kontzeptu horiek ikertzean, filosofoa konturatzen da atzean dauden konplexutasunez, loturez, korapiloez... Arrietak egungo auziak azaltzen dizkigu, esaterako, artistikoak –zer da artea? Edo zer ez da?–, politikoak –zein da gobernurik egokiena? Zergatik?–, zientifikoak –zer da zientzia? Nork erabaki behar du zer ikertu? Zein jokabide edo harreman eduki behar dugu teknologia berriekin?– eta beste hainbat. Auzi horietan, egileak aurkezten digu askotan kontzeptu arauemaileak daudela.

Egunerokoarekin lotuta dagoela esan dugu. Hain zuzen ere, liburua modu dialektikoan edota kritikoan hasten da, sarreran bertan. Filosofia modu negatiboan adierazten duen ikuspegi ezberdinen aurka arrazoitzen du Arrietak. Ezaguna da filosofia zentzu negatiboan adierazten duten horiek esaten dutena: ez da zientzia bat, ez du ezertarako balio, espekulazio hutsa da, zientziaren aurrerapenak akabatu egin dute, ez du eraginik gizartean, filosofoak pertsona erdi eroak izaten dira... (Nork ez du entzun Miletoko Tales auresokratikoari buruzko anekdota, zeinetan esaten den zerura begira ibiltzen zihoala, mundutik urrundutako espekulazioaren gorentasunean, putzu batera erori zela?) Arrietak sendo argudiatzen du ikuspegi horiek akastunak direla ondorioztatuz.

Filosofia zentzu positiboan aurkezten duenean, bere tokia aipatuz, haren izaera kritikoa azaltzen digu Bertrand Russellen eskutik. Eta “kritiko” hitzaren hainbat zentzu dira lan hau ezaugarritzeko moduetako bat. Kritika, zentzu batean, dialektika da, hau da, ikuspegi baten aurkako argudiaketa, zeinetatik ondorioren bat atera nahi den. Hala, galdera deserosoak, sokratikoak egiten ditu filosofoak, ezjakintasunaren lasaitasunaren aurka; antzeko zentzu batean, izaera kritikoa dogmen aurkako jokabidea agertzen du. Kritika, gainera, galbahea pasatzea da, hau da, sailkatzea. Eta, azkeneko zentzu bat, Kantek hartuko zuena, bi muturreko ikuspegiaren artekoa izango zen, dogmatismoaren eta eszeptizismoaren –edo erlatibismoaren– artekoa, hain zuzen. Zentzu guzti horietan da kritikoa Arrietaren liburua. Ez da filosofiarako sarrera huts eta neutro bat, autoreak berak askotan ikuspegi baten alde parte hartzen baitu eta hori, gure ustetan, zintzotasun ariketa bat da, kartak mahai gainean jartzen dituelako. Askotan ikus daitekeen moduan, filosofo humearra dela antzeman daiteke. Nola edo hala Humen ikuspegia azaltzen du –batzuetan zalantzan jartzeko bada ere–, eta baita harekin bat egin askotan. Etikari buruzko ikuspegi nabaria da eta, gainera, Humen etikari buruz aurkeztu zuen mintegi baten laburpena gehitzen du eranskin batean.

Amaitzeko, esan daiteke azken zentzu kritikoa markatzen duela filosofiarako sarrera hau. Arrietak beti muturreko bi ikuspegi azaltzen ditu, auzien erantzun horien bidez ere eza-gutza lortzen delako. Baina, dogmatismoak zein erlatibismoak edota muturrekoak diren beste bi jarrera filosofikoen aurrean, beti erdibide bat aurkezten digu, apaltasunez eta zuhurtziaz. Zentzu horretan, liburu aristotelikoa dela esan genezake: bertutea erdibidean dago. Azken finean, Arrietak berak dioen bezala, «*zuriaren eta beltzaren artean ere badaude kolore asko, grisak, esaterako, eta horrek ez du inplikatzeko zuriaren eta beltzaren arteko bereizketak zentzurik ez duenik*», baina «*seguru asko, muturreko bi jarrera horien artean dago egia*».

Maddi Nazabal Etxebeste  
Joseba Pascual Alba